

Abarkagintza

Eskolan egiteko ariketak





Bisita egin baino lehen

Oinutsik ez!

Gure arbasoen ohiko oinetakoa abarkak ziren, eta gaur egun baserritarrez janzten garenean erabiliko dituzu seguru aski. Munduan zehar historian oinetako mota ezberdinak egon dira, beharren eta erabileraren arabera itxura bat edo beste izango zutenak. Ezagut itzazu!



JATORRIA

Erromatarrek (E.H.an eta Menorkan oso erabiliak)

DESKRIBAPENA

Larruzko oinetakoa gero gomaz edo kautxoz egin dena, pieza bakarrean egina

ERABILERA

Belarretan, ibiltzeko eta orain dantzariak



Erromatarrek eta penintsulako leku heze eta euritsueta erabiltzen da

Egurrez edo larruz eta egurrezko zoruarekin eginiko oinetakoak

Mendian edo terreno lokaztuetan ibiltzeko egokiak



Aintzinako Erromatarrek, egiptoarrak,...

Larruzko tira batzuk zoruari helduta

Aspalditik erabiliak orain udako oinetako bezala erabiltzen da



Egiptoko sandalian seguruenik oinarrituta.

Zorua espartzuko eta oinaren goiko zatia oihala


Tradiziozko janzkerari lotuta, garai batean langileek erabiltzen zuten oinetako eroso



Ez dago ziur, lanerako sortu ziren ziurrenik

Egurrez egindako makilak oina jartzeko base batekin

Ureztatutako lekuak zingiratsuetan ibili al izateko, errekak zeharkatzeko eta baita (ardiak zaindu,...) leku lauetan ganadua zaindu al izateko altura batetik



Japoniako tradiziozko oinetako mota, kimonoarekin udan erabiltzen dena

Egurrezko ohola laua egurrezko bi ola txiki gainean oinarrituta

Japoniako tradiziozko oinetakoa



Materialak eta hauen jatorria


Erlaziona ezazu oinetako bakoitza bere egiteko materialekin, eta material bakoitza bere jatorriarekin. Zein ezberdintasun dago lehen egiten ziren oinetakoen (abarkak) eta gaur egun egiten direnen artean?

OINETAKOA	MATERIALA	JATORRIA
	<p>1 Larrua</p>	<p>1 .behia..... .gamelua..... .krokodiloa.....</p>
	<p>2 Artilea</p>	<p>2 .ardia..... .ahuntza.....</p>
	<p>3 Plastikoa</p>	<p>3 .petrolioa.....</p>
	<p>4 Goma</p>	<p>4 .landareak.....</p>
	<p>5 Kautxua</p>	<p>5 .landareak..... .edo..... .petrolioa.....</p>
	<p>6 Ohiala (kotoia)</p>	<p>6 .landareak.....</p>
	<p>7 Egurra</p>	<p>7 .zuhaitzak.....</p>

Jantzita dituzun oinetakoak



Ohituren aldaketa

 Oinetakoak puskatzen zaizkizunean zer egiten duzu? Konpontzera eraman edo berriak erosi? Lehen nola izaten zen? Zergatik? Galdetu aitona-amonei eta osatu ezazu jarraian ageri den taula:

	Oinetako kopurua	Non erosi	Konpontzera eraman	Zergatik?	Oinetako ezberdinak zertarako erabili?
Zuk					
Aitona amonek (zure adina zutenean)					

 Ondorio bat baino gehiago atera ditzakezu, aipa itzazu hemen.



Bisita egin ondoren

Astiazaranen asko ikasiko zenuen, goazen konprobatzera.

Larrugintzako pausoak

Lotu ezazu pauso bakoitza dagokion azalpenarekin:

PAUSOA

AZALPENA

Animalia larrutu	1 ●	5 ●	Larruazalean itsatsitako haragi puskak, zati koipetsuak...kendu
Larrua ondu	2 ●	9 ●	Modu honetan larru eta larruazaletan nahi dugun kolore modu egonkor batez finkatzen dugu.
Garbiketa	3 ●	6 ●	Larruazalak aurreko prozesuetan xurgatutako produktu kimikoak kentzeko
Depilatu	4 ●	3 ●	Larruak lehortzean galdutako ura hartzen du eta itsatsitako odola, lokatza etab kentzen zaizkio
Haragi-bereizketa	5 ●	8 ●	Larruazala bi zatitan zatitzen da
Kare garbiketa	6 ●	2 ●	Larrua industrian erabili ahal izateko lehortu egin behar da
Beratzea	7 ●	10 ●	Larruaren kanpoko aldean, gantz eta bale-koipea edo arrainaren gibelaren koipea edo beste animali baten koipearen nahasketa zabaltzen da espatula baten laguntzaz
Larruaren zerratzea	8 ●	4 ●	Larruazaleko ileak kentzea, karea edo produktu kimikoak erabiliz
Tindaketa	9 ●	1 ●	Animalia hil eta larru azala kentzea
Koipeztaketa	10 ●	7 ●	Larruazala biguna geratzeko prozesua



Gogoan al duzu nola egin zenuten abarka?

Ordена itzazu pausoak eta lotu ezazu pauso bakoitza dagokion materialarekin. (materialen artean badaude abarkagintzan erabiltzen ez direnak):

PAUSOAK

MATERIALA

- Markak egin ● 2
- Sokak jarri ● 6
- Larrua moztu ● 1
- Josi ● 5
- Abarkari buelta eman eta muturra kolpatu ● 4
- Zulatu ● 3

- Guraizeak
- Boligrafoa
- Destornilladorea
- Mailua
- Larruzko uhala
- Soka
- Grapagailua
- Haria
- Plastikoa
- Kola

Abarkak egiten dituen baserritarra ezagutu duzu, baina badira ezta, gazta, barazkiak, ogia, frutak, lore eta landareak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?

“Baserrria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitetz zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!